

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1033

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkarirena, zeinen bidez deialdia egiten baita zehaztutako finkak okupatu aurretiko aktak jasotzeko; finkok 30 kV-ko aireko linea elektrikoa, Z/B Abadiño-Euba izenekoak –Abadiño TA eta Euba TA arteko tartean– eta horren adarrak, Abadiño, Amorebieta-Etxano, Durango, Iurreta, Izurtza eta Mañariko udalerrietan.

Erref.: L-7906 ASS-TLE

Esp.: AT-H-2012/89.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2013ko irailaren 5eko Ebazpenaren bidez, aipatu instalazio elektrikoa herritarrentzat onuragarria dela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko deklarazioak berekin dakar: eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen (1954ko abenduaren 17ko BOE) 52. artikuluekin bat, lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eragindako eskubideen jabe eta titularrei deitzea, Abadiño, Durango eta Iurreta udaletxera, izan ere, bertan baitaude eragindako ondasunak. Bertan burutuko dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioarena.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titullarrak eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordezkari dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Honekin batera doan zerrendan aditzera emandako egun eta orduan jasoko dira aktak, eta hori zitazio zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako argitalpenak ere egingo dira.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiko 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealean eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki baten bitartez Bilboko lurralde-bulegoan (Concha kalea 23-5), aldeztu aurretiko aktak jasotzeko izendatutako egunera arte.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 59.4 aurreikusitakoaren arabera eta Nahitaezko desjabe-

2014ko martxoaren 3a, astelehena

tzeari buruzko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan aurreikusitakoaren arabera, iragarki honek ondoko hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasun eta interesen titular ezezagunei eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2014ko otsailaren 5a.

Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

2014ko martxoaren 3a, astelehena

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

PROIEKTUAK ERAGITEN DIEN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA Erref: L-7906 AT-H-2012-89 ASS-TLE

ABADIÑOKO UDALERRIA

Katastroko Datuak		Lursaila	Jabea	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursail-zk (planoaren arabera)	Poligonoa						
01-07	008	204	Olea Azkarraga, Cecilia	Martxoa	31	09:00	Abadiño
01-08	008	195	Arrinda Mondragon, M. ^a Asuncion	Martxoa	31	09,30	Abadiño
01-20	016	162	De Miota Navarro, Luis	Martxoa	31	10:00	Abadiño
01-23	016	156	Fernandez de Larrea Navarro, Jose M.	Martxoa	31	10:30	Abadiño
01-27	036	2002	Binaria 21, S.A.	Martxoa	31	11:00	Abadiño
01-28	036	2001					

DURANGOKO UDALERRIA

Katastroko Datuak		Lursaila	Jabea	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udalerria
Lursail-zk (planoaren arabera)	Poligonoa						
02-01	092	5013	Binaria 21, S.A.	Apirila	2	09:00	Durango
02-02	092	9001					
02-04	092	2007					
02-22	099	4004					
02-23	099	4010	Promociones Nuevo Tabira, S.L.	Apirila	2	10:00	Durango
02-26	099	4022					
02-27	005	007					
02-25	099	4011	Guerdiaga Arteaga, Celestina	Apirila	2	11:30	Durango
02-29	099	5004	Ayarzagüena Zabaleta, Facundo	Apirila	2	12:00	Durango

2014ko martxoaren 3a, astelehena

IURRETAKO UDALERRIA

Lursail-zk (planoaren arabera)	Katastroko Datuak		Lursaila	Jabea	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udalerria
	Poligonoa							
03-10	217		2001	Arriandi 2000	Apirila	2	12,30 H.	lurreta
03-20	005		007	Viveros Ibarondo, S.A.	Apirila	2	13 H.	lurreta